


Astekaria

BARREN

elgoi



Korrikalari onenak Mintxetan

IRAKASLE
ELKARTEA

ZEZENBIDE



auto-eskola

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

AURKIBIDEA

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
"Mixeriak aidean". Itziar Agirregomezkorta.
- 6 ERREPORTAIA**
Mugerza krosa, ezkutuko lana agerian.
- 8 ASTE HONETAN**
Zein da krosa irabazteko faborittoa?
- 16 BERBETAN**
Aloña Aranburu:
"Urtebetean gauza askoren falta sentituko dut"
- 15 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Francisco Arano (Baltasar)
- 18 KIROLA**
Elkarrizketa: Miren Beitia
IV. Elgoibarko Areto Futbol Txapelketa
- 20 ELKARTEETATIK BUELTAN**
Alkoholiko Anonimoen Elkarte
- 21 KULTURA**
Eduardo Arrillagak bi sari irabazi ditu Bartzelonan

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdia...	461111
Txanda hartzeko ...	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Z.	7410 08
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

farmaziak

- 15, larunbata: Ormazabal
16, igandea: Ormazabal
17, astelehena: Etxeberria
18, asteartea: Ormazabal
19, asteazkena: Ormazabal
20, osteguna: Ormazabal
21, ostirala: Yudego

okindegia

- 16, igandea: ZABALETA
17, astelehena: EIZAGIRRE



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldeg

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabeberterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mixeriak aidean

Badira hitzak, hitz soilak izanagatik, nolabaiteko izua sortarazten digutenak, inork, hauen jabe delarik ere, maite ez dituenak, hitz ankerrak, hitz degradatzaileak. Halere, hor dira eta hor diraute gizakiak legeak bere egiten dituen artean, eta iraungo, hauen esanahia esku-aldatzen ez deneino.

MIXERIA hitza darabilkit buruan lerro hauek izkribatzean, eta batek baino gehiagok pentsa dezake egungo krisi-egoerari atxekiz natorrela. Bejondaiola!, baina azken egunotan larregitxo mintzatu zaizkigu horrelakoez eta nik gaur papereratu nahi dudana, ez doa bide horretatik, izan ere, aspertuxe baikaude ikara besterik ez dakarkigun hitz horrekin.

Beste era bateko MIXERIAZ ari natzaizue, gizabanakoak "bere" eta ondo gordeta dituen horietaz, alegia. Nork ez du bere bihotz barruko txoko ilun horretan mixeriarik izkututzen? Nork du gogoko mixeria horiek aideratzea? Hauen jabe garela dudarik ez dago, baina berauek

kanporatzeari izugarria deritzogu.

MIXERIAK asko dira eta esanahiak dioen bezalaxe, ez dira gustagarriak, hala nola, GAUDENETAN LEHEN MAILAKOAK EZ IZATEA, ERROREEZ EZ JABETZEA, ALTRUISMOA ZER DEN EZ JAKITEA....., dena dela, gureak diren aldetik, geure esku legoke ezaugarri horren esanahia aldakatea.

Puntu honetara etorrita, ez dakit oso ziur zein den gizakiok hartzen dugun jarrera honen zioa, beharbada, gizarteak ezarritako horietako rol baten ondorioa da, halere, ez liguke inolako kalterik egingo, geureganatzen ditugun ausnarketa une urri horietan, bihotza jartzeak buruaren lekuan eta hain zamatsu gertatu ohi den mixeria hori, noizik eta behin azaleratzea, ez baitauka zerikusirik MIXERIAK, MISERABLE izatearekin.

Itziar Agirregomezkorta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



? GALDERAK

Noizko Elgoibarren pila kontenedore bat?

Datorren astetik aurrera Elgoibarko Gurutze Gorriak botoi neurriko pilak jasotzeko kontenedoreak banatuko ditu pilak saltzen dituzten dendetan eta ikastetxeetan. Lehenago ere egin izan da kanpaina hau eta hiru hilabetetan zehar egongo dira ipinita kontenedoreak.

☞ KEXAK

Zergatik jendeak lagatzen ditu basura poltsak kontenedoreen kanpoko aldean, barruan lekua dagoenean. Ez izan hain alperrak!!!!

☞ TXALOAK

Errege bezperan, halako kabalgata eta jaiotza egokia egin ahal izan izateko lanean aritu ziren guztiei.

Gogorrak gara!

Urte osoa "eske herri honetan ez dago ezer!", "gaztientzat gauzak organizau bihar dira" eta bestelakoak esaten pasatzen dugu. Gero, ganorazko zerbait antolatu eta "zorion erdi bat bakarrik antolatzaileei" baino ez daukagu gure borondate onaren adierazle. Gogorrak benetan!

Dagoeneko konturatuko zineten BARRENen 46. zenbakian argitaraturiko eskutitzari erantzuteko idazten dudala. Ez naiz bertan azaldutako kritikei erantzuten hasiko (hori, inork egitekotan, antolatzaileek egin beharko dute). Halere, Gabonetako kuadrilen arteko kirol txapelketa kritika hauen gainetik dagoela uste dut. Hiru urtetan lortu duen arrakasta eta onarpena benetan handia da eta ez dut uste "zorion erdiekin" ahalegin horri merezi duen ordaina ematen diogunik. Badakit, eta kritikak idatzi dituenak ere bai, horrelako kirol-iharduera bat antolatzea zenbat kostatzen den. Izerdi eta ordu askoren emaitza izaten da.

Antolakuntzetan ibiltzen

direnek ez dute lan hori txalo eta goraipean handien esperoan egiten. Baina mingarria izan behar du hainbeste lan egin eta gero "zorion erdiekin" gelditzea. Eskutitz honen nahia kuadrila arteko txapelketa antolatu eta lanean aritu diren guztiei "zorion osoak" ematea da. Zorionekin batera, aurrerantzean bide beretik (hobekuntzei atek irekita) segitzeko animoak ere eman nahi dizkiedalarik.

"Eske herri honetan ez dago ezer!" esaldia behin-betiko desagertzeko ahaleginetan dabilen jendearekin esker onekoak izan behar dugula uste dut. Dena den, iritzi bat baino ez da.

I.L.

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu.

Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak soilik agertuko dira.

Dardara

SOLARIUMA
KREMAK
eta orain
PERFUMEAK
BITXIAK

Errosario, 25 behea. ☎ 74 21 82

ORTUETA

Lapatak eta poltsak

San Frantzisko 2 ☎ 74 04 95

Ordu 1ean errebelatzen dugu

foto | azkue

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

Aste honetako erretratu zaharrak **Ongarri argazki elkarteak** bildu eta **Udal liburutegiak** lagatakoak dira.

Juan Mugerza krosetako fetxetan murgildurik gaudenez, gaurkoan eta datorren astean kros famatuari buruzko erretratuak aterako ditugu. Zeintzuk diran korrikalari hauek?

Prudencio Aierra (lehenengo Mugerza krosa irabazi zuena), **Mammo Wolde** (karisma handiko korrikalaria, Elgoibarren oso maitatua, lau aldiz irabazi zuen Mugerza memoriale) eta **Mariano Haro** (Palentziako korrikalari ezaguna bost aldiz izan zen Elgoibarren irabazle).




Prudencio Aierra



Mammo Wolde



Mariano Haro



Abenduaren 30ean Elgoibarren hil zen
Pedro Garcia Garateren
emazteak eta ahaideok **ESKERRAK** eman nahi dizkizuegu haren
hiletara joan zinetenoi eta samin-agurrak bidali eta une latz honetan
lagun izan zaituztegun guztioi.

Mugerza krosa, ezkutuko lana agerian

Igandean, hilak 16, Mugerza krosaren 51. edizioa burutuko da. Iaz bezala, Mintxetan izango da lasterketa eta aurten, ibilbidea behin betirako finkatzea espero du antolakuntzak. Aurten gainera, berrikuntza bat izango da: emakumeen junior lasterketa, alegia. Hain ezaguna den memorial hau prestatzeko eginkizunak asko dira eta, batzutan astunak gainera. Lerro hauen bidez, Mugerza memoriale antolatzen dutenen lana eta lasterketa berari buruz xehetasun batzuk ezagutzeko aukera izango dugu.



■ ■ Mugerza krosaren antolakuntzaz arduratzen diren zazpiak.

Mugerza Krosa nazioarteko lasterketa bat da eta berau antolatzeko buruhaute ugari, ekonomikoak batez ere, gainditu behar izaten dira. Aurten 51. aldiz burutuko da. Ikusiko dugun bezala, horrelako lasterketa bat antolatzeko gestio ugari egin behar izaten dira eta lau bat hilabete lehenago lanean hasi.

● **Gestioak**

Lehendabizi egin beharreko lana lasterketaren patrozinatzailea topatzea izaten da. Arazo zailena izaten da berau. Aurten "Zoco paxarana" etxea arduratu da esponsorizazioaz. Lasterketaren aurrekontuaren %20a finantzatzen du patrozinatzaileak. Beste eginkizun garrantzitsu bat publizitatea lortzea izaten da eta horretarako, urtero, lasterketari buruzko liburuxka egiten dute.

● **Antolatzaileak**

Antolakuntzan zuzenean lan egiten duten pertsonak sei dira: Jose Gurrutxaga, Fermin Arrese, Juan

Mari Iriondo, Ricardo Garate, Javi Idarraga eta Fernando Uriarte. Sei hauen gain, Ego-Toki elkarteko presidentea den Txomin Iribarren atletismo batzorde eta zuzendaritzaren arteko harremanetaz arduratzen da.

● **Korrikalariekin harremanak**

Antolakuntzaren helburua korrikalari jakin batzuek kontratatzea izaten da urtero. Aurreko denboraldian arrakasta izan duten korrikalariak ekartzen saiatzen dira. Managerrekin hitz egiten dute, inoiz ez korrikalariekin. Garai batean, berriz, korrikalariekin egiten zen tratua. Korrikalari espainiar guztiak pretsona bakar baten bidez kontratatzen dituzte. Atleta etiopiarrek kontratatzeko

Holandako emakume batekin kontaktatu ohi dute eta keniarrek ingles batzuren bidez kontratatzen dituzte. Portugaldarrak harreman pertsonalen bitartez kontratatzen dituzte.

● **Kontratazioa eta sariak**

Prezioak jeitsi egin omen dira. Krisiak ere izan omen du eraginik kirolean. Hala ere, ez da makala punta puntako korrikalariek kobratzen dutena. Elgoibarrera datozen keniaten prezioa %50a merketzea lortu dute Ego-Tokikoek. Dena den, bi etiopiar eta hiru keniar etorriko dira eta bost korrikalariak ekartzea-gatik bi milioi eta erdi pezeta gastatu dituzte. Figura handiak lasterketaren erdian erretiratu egingo balira agin-

LASTERKETAK

10,45	Emakumezkoen Junior lasterketa	3.404 m.
11,15	Gizonezkoen Junior lasterketa	6.926 m.
11,15	Emakumezkoen senior promesa lasterketa	5.365 m.
12,30	Gizonezkoen senior promesa lasterketa	10.848 m.

dutakoaren erdia soilik kobratuko lukete. Lasterketa irabaziko balute ere, hauek ez dute saritan dirurik kobratuko. Saritan 325.000 pezeta banatuko dituzte korrikalari euskaldunen artean.

● Ibilbidea

Ibilbidea irailaren erdi aldetik hasi ziren prestatzen. Irailaren bukaerarako ibilbidea nola izango zen erabakita zeukaten. Udalari egin beharreko lanak azaldu eta baimena jaso ondoren ekin zioten lanari. Bailak margotu, ibilbidetik harriak kendu, pista sarrera egin... milaka eginkizun zegoen egiteko. Lasterketetan bi motatako birak egongo dira: bira handia, 1950 metro dituen eta bira txikia 1.400 metro dituen. Aurten diseinatu duten ibilbidea betirako izango da.

● Lasterketa puntuagarria

Euskal Herriko Federazioak "kros challenge" deritzona sortu berria du eta Mugerza krosa denboraldiko lehen lasterketa puntuagarria da. Puntuagarri izango diren beste lasterketak Donostiakoa, Zornotzakoa eta Euskadiko eta Espainiakoa txapelketak izango dira.

● Aurrekontua

Guztira 10 milioi t'erdi. Krisia asko nabaritu da aurtengo aurrekontua iaz baino %20 gutxia-

go baita. Aurrekontua modu honetan finantziatzen da: 2 milioi patrozinatzaileak jartzen ditu, milioi t'erdi sarreretatik, Udalak, Jaurlaritzak eta Aldundiak emandako diru-lagun-tzatik 3 milioi inguru, liburuxkatik 1.700.000 inguru eta gainontzekoa publizitatea eta jendeak ematen duenetik.

● Omenaldia

Ego-Toki elkarteak Jesus Gonzalez Margaride korrikalari galiziarra omenduko du. Budapest-en zegoela atake bat jasan zuen eta aurten ez dute antolatzaileek omenaldia egiteko aukera galtzerik nahi izan.

● Lerun eta Mintxeta

1950. urtera arte kaleetan zehar eta San Bartolome jaietan egiten zen lasterketa. 1951ean Lerunen hasi zen egiten. Instalazio aldetik hobea da Mintxeta eta bisibilitatea ere askoz hobea da. Lerun orijinalagoa eta politagoa bazen ere Mintxetak kalitate handiagoa eskaintzen du.

● Eguraldia

Eguraldia erabakiorra izan ohi da. Lokatzean korrika egiteko iltze luzedun zapatilak dira hobekak. Lerunen korrikalariak gaizki moldatzen ziren iltze luzedun zapatilakin. Lokatzean korrika egiteko onak badira ere asfaltoaren gainean gaizki moldatzen baitziren.



■ ■ Aurten ere punta puntako korrikalariak ikusiko ditugu Mintxetan.

●●● BITXIKERIAK ●●●

● 200 korrikalari baino gehiago

Izena emateko epea ez da bezpera egunera arte isten baina dena den, senior lasterketan 100 korrikalari inguru izango dira. Lau lasterketek 200 korrikalari baino gehiago bilduko dituzte Mintxetan.

● Elgoibartarrak

Mugerza krosetan parte hartuko duten elgoibartarrak Julian Garcia, Alberto Revuelta, Santi Maiztegi eta Antonio Fernandez izango dira. Auten ez dugu herriko neskarik korrika ikusteko aukerarik izango.

● Faboritoak

Keniatik Simon Chemwoyo eta Phillip Mosima. Etiopiatik Addis Abebe eta Worku Bikila. Emakumezkoetan duela bi urte Elgoibarraren txapelkun izan zen Helen Kimayo keniarra.

● Adin arazoak

Inork ez daki guztiz ziur zein den afrikarren adina. Addis Abebe etiopiarra itxuraz 30 urte ditu baina ofizialki 22 urte baino ez ditu. Dirudenez adina kalkultzeko metodo ezberdinak dituzte Afrikan.

● Telebistaz diferituan

Telebista espainiarreko bigarren kateak ez du zuzenean emango lasterketa. Aurten eguerdian emango dute 2ak aldera. Horrela ikusle go gehiago izango dela espero du antolakuntzak.

● Anekdotak

- Mammo Wolderi, 60. hamarkadako txapelkunari angulak atera zizkieten behin Barrutia jatetxean. Aurpegi txarra jarri zion lehen urtean baina behin dastatu eta gero, urtero eskatzen omen zituen angulak.

- 1990. urtean Kypyego Kororia korrikalari keniarra, Santandereko dantzaleku batetik goizaldeko leian erretiratu eta hurrengo egunean Mugerza krosa irabazi zuen. Keniarrek bakarrik egin omen ditzakete horrelako gauzak.

Zein da krosa irabazteko faborittoa?

Lehendabizi esan behar dut behin bakarrik asmatu dudala irabazlearen izena: iaz. Honek ez dauka inolako meriturik, edozein zale-tuk jakin baitzezakeen Fita Bayesa etiopiarrek irabaziko zuela.

Aurtengo irabazlearen izena iragartzea zailagoa da. Afrikarrak beti etortzen dira eta kontutan hartu behar dira beti. Datozen lau beltzen artetik, Simon Chemwoyo keniarraren eta Addis Abebe etiopiarren arteko lehia-aren aldeko apustua egingo nuke. Chemwoyok Sao Pauloko San Silvestre lasterketa irabazi du aurten eta bigarren izan da Parisko *Le Figaro* kro-sean. Addis Abebe Bolzanoko San Silvestre-an garaile izan da eta bigarren Les Houilles-en. Iaz ere, bi korrikalari-ek arrakasta handia izan zuten. E-maitza hauek eta egungo forma aztertuz, Chemwoyoren alde jarriko nuke balantza. Halere, berriro esan behar dut ez naizela asmatzen dutenatarikoa.

Lehen korrikalari "zuria" izateko borroka ere interesgarria izango delakoan nago. Kro-sean garrantzia dauka lehen korrikalari ez afrikarra izateak. 1993.eko kros mundialean sailkatutako lehen bi korrikalari ez afrikarren arteko lehia ikusteko aukera izango dugu: Martin Fiz euskalduna eta Domingos Castro portugaldarraren artekoa. Pasa-

den astera arte portugaldarraren aldekoa nintzen, baina Fizek, Kororia, Kirui eta Otieno keniarrak Maliañoko kro-sean irabazi zituela ikusi nuenean iritzi-z aldatu dut. Fiz izan daiteke lehen korrikalari zuria eta beharbada lasterketaren irabazle ere, azken hau oso zaila bada ere. Pozgarria litzateke euskaldun batek Elgoibarren irabaztea.

Hala ere, espektakuluaren mesederako azken unera arte irabazlea ez erabakitzea espero dut. Ego-Tokiko atletismo batzordeko kide bezala Mintxetara joatera gonbidatu nahi zaituztet, aurreko-ekoz gain, Eammon Martin, Phillip Mosima, Worku Bikila, Alejandro Gomez, Carlos Adan etb. izango baititugu bertan.

Nor ote irabazlea? Igandean eguerdiko 1ak aldera jakingo dugu.

(Erredakzioan itzulia)



JUAN MARI IRIONDO

EGO-TOKIKO ATLETISMO BATZORDEKOA

ARMUETA
 Baserriko haragietan berezia
Harategi Urdaitegia
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

INTERIORES
 - SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
 - ATE TOLESGARRIAK
 - BARRUKO ARMAIRUAK
 - DEKORAZIO GAIAK
 Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
 Errosario 15 Behea.

imanole
GOZOTEGIA
 San Frantzisko 44, 74 41 37

XABIER
 ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
 San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

"Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak 1993"

SARI BANAKETA

EGITASMOA

- VIII. Prosa lehiaketako sari banaketa
- PETER ROBERTSen mimo emanaldia.
- XIII Etxegiña Bertso Paper lehiaketako sari banaketa.

NOIZ

Urtarrilaren 19an
 asteazkena
 Arratsaldeko 7etan

NON

Ikastolako aretoan

ANTOLATZAILEA:
 ELGOIBARKO IZARRA
 Kultur Elkarte



LAGUNTZAILEAK:
 ELGOIBARKO UDALA
 GIPIZKOAKO ALDUNDIA



Joango al zara krosera? Faboritorik?



Koldo Muruamendiaraz
15 urte, ikaslea

Urtero juten naiz eta aurtentzen ere Mintxetara jungo naiz. Ez daukat faboritorik baina ahal bada euskaldunen batek irabaztea nahiko nuke.



Nerea Perez
25 urte, etxekoandrea

Aspaldi ez naizela jun. Mariano Haroren garaiaz gogoratzen naiz. Ondo dago, zerbait ezberdina da bana aurtentzen ere, umearekin, ezingo dut joan.



Marisabel Oñederra
34 urte, kliniko auxiliarra

Joaten gara, hain zuzen ere ez, baina aurtentzen joango gara. Oraindik ez naiz enteratu zeintzuk egongo diren baina badakit keniatak direla onak.



Josu Zubiaurre
15 urte, ikaslea

Igandean krosa ikustera joango naiz eta beti juten naiz. Beltzen batek, etiopet batek irabaziko du. Onenak dira.




Elias Fernandez
26 urte, tabernaria

Aurtentzen ezingo naiz Mintxetara joan lan egin behar dudalako. Arabarrak irabaztea nahiko nuke, Martin Fizek. Baina Addis Abebe izan leike faborittoa.



Nuria Bergua
24 urte, optikoa

Aspaldi ez naizela jun baina aurtentzen bokadilo eta guzti jungo naiz. Onenak keniatak eta etiopetak dira. Azkenenکو pruebetan ere euren irabazi dute.



Afari merkeak

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)

Hemendik aurrera
EGUNEROKO MENUAK
650 pta.

Aurrez enkargatu ezkeru, hobe!

Tel: 74 25 95

I LEAP A IN DE G I A

FADEK SOLARIUM

Errosario Kalea, 35 behe

74 26 92 Elgoibar

■ C.D. Elgoibarko zozketa

Gabonetan zehar C.D. Elgoibarrek egindako zozketako zerbaki sarituek badute jabea. Lehen zerbaki saritua 1.593 izan da eta saria Xabier Alonsori tokatu zaio. Bigarren zerbaki saritua 5643 izan da eta zorteduna Iñaki Barrutia izan da. Zorionak bie!

■ Ertzantzaren bandaren kontzertua

Ertzantzaren musika bandak kontzertu bat emango du igandean, hilak 17, Ikastolan eguerdiko 12,30etan. Ordu erdi lehenago kalejiran zeharkatuko ditu kaleak. L.M. Andres Perez de Herediaren gidaritzapean honoko obra hauek joko dituzte: "Centenial Prelude" (V. de Rost), "A Highland Rhapsody" (V. de Rost), "Acuarelas campesinas" (Cebrian Ruiz), "A Farmes Holiday" (Klees Vlak), "Mexican Pictures" (F. Cesarini) eta "Twins" (J. Haderman).

■ Txankakuaren zozketa

Txankakua Merkatari eta Zerbitzu elkarteak urtarrilaren 7an notarioaren aurrean egindako neguko kanpainako zozketan honoko zerbaki hauek atera dira saritua:

113.783
106.322
014.990
070.811
030.045
110.611

Zerbaki sarituen jabeek, 40.000 pezeta erosketara txeke bana jasoko dute. Sari banaketa otsailaren 4ean izango da iluntzeko 8etan Kultur Etxean.

Igandean, artisautza azoka



Datorren igandean, hilak 16, Plaza handia ohizko artisautza azokaren gune bihurtuko da. Aspalditik egiten den artisautza azokak Euskal Herriko artisau onenen eskulanak ikusteko aukera emango digu. Bazter guztietatik etorriko dira artisauak: Nafarroatik, Bilbotik, Bizkaiko hainbat herritatik eta noski, elgoibartarrak ere izango dira. Elgoibartarren artean, Jose Juaristi zeramika era-

kusten egongo da, Leandro Rodriguezek egurrezko goilarak erakutsiko ditu eta Carmen Elorza gantxiloa egiten ikusteko aukera izango dugu.

Plazan ikusi ahal izango diren ihardueren artean, egurrezko tailak, zumea, saskigintza, pintura, erraldoi eta buruhandiak, harrijasotzeko harri txikiak, marketeria, metalezko zuhaitzak, baserri eta itsasuntzien maketak etb.egongo dira.



San Lazaro egoitzako edadetuek omenaldi astea ospatu zuten joan den astean. Bost egunetan zehar, ekintza ugari izan zituzten, tartean, zine emanaldiak, kontzertuak, txokoladak... Hemen dauzkagu, hilaren 5eko gauean, sortaldeko erregeen eskutik opariak jasotzen.

●● GURE GAIA ●●

Mendaroko historia liburu batean bildua

Mendaroko ikerketa historikoa Euskal Herriko Unibertsitateari esker burutu ahal izan da. Ikerketaren zuzendaria Joseba Agirreazkuenaga izan da eta ikerlariak berriz, Jose Patrizio Aldama eta Txema Uriarte. Lana hiru egileek aurkeztu zuten pasa den abenduaren 29an Mendaroko Kultur Etxean.



Anton Zubiaurre alkate jaunak Kultur Etxera hurbildu zirenei agurra egin ondoren ikerlariak, beraiek egindako lana aurkeztu zuten. Lan honetan Mendaroko herriak historian zehar izandako egitura ezberdinak eta bertako biztanleen ohitura eta bizimoduaren garapen ia ezezagunak biltzen dira. Liburua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, 500 ale hizkuntza bakoitzean.

Lan honen kostua 5.000.000 pezetakoa izan da eta finantziarioari dagokionez Gipuzkoako Aldundia

(1.000.000 pta.) Kutxa eta Mendaroko Udalaren artean ordainduko da.

Liburua eskuratu nahi duenak *Denetik* dendara edo Udaletxera jo ahal izango du, bi toki hauetan bait dago salgai 2.500 ptatan. Dena den, euskarazko argitaralpena, denbora arazoak medio, ez da eskuragai egongo urtarrilaren amaiera arte.

Udalaren asmoa liburu hau balio handiko erreferentzi-iturri bihurtzea da, gai honetan adituak direnentzat ezezik, gure herrian gutxi zabaldu diren arloak ezagutu nahi dituztenentzat ere.

Aipamen historikoak

- ❖ Aitzbeltzeko kobazuloa A. Muguruza eta A. Arrilagak topatu zuten 1918 urtean. Hau izan zen Deba Behean eginiko lehen azterkuntza arkeologikoa.
- ❖ Trinidadeko ermita (lehen Santa Triana) Astigarribiako S. Andres Monastegia baino zaharragoa omen da eta, bere garaian, inguruko elizarik inportanteena zen, Zenarruzaraino ez bait zegoen besterik.
- ❖ Deba ibaia XVIII. menderarte nabigagarria izan zen Altzolaraino.
- ❖ “Mendaro” hitza 1.256ko maiatzaren 16an agertzen zaigu lehen aldiz dokumentuetan.
- ❖ 1.346ko abenduaren 20an, Markina eta Mendaroko biztanleek Villamayor de Markina (gaur Elgoibar) eraiki eta jendeztatu zuten, Alfonso XI. erregearen baimenarekin.
- ❖ Garagartza auzoaren zati bat XX. menderarte Debako lurraldea izan zen. 1.889 urtean Elgoibarrera pasatu zen.
- ❖ M.M. Agustinasen komentua 1.561eko urriaren 11an fundatu zen eta lehen “priora” Domenja de Andonegi izan zen.
- ❖ 1.794ko azaroaren 20an, Konbentzioko gerratean, bertakoek frantsesei aurre egiteko Mendaroko zubi nagusia bota zuten.



Emakumeak zertarako?

Hain modan dagoen biolentzia hitzak, indarkeria fisikoak ez ezik, beste indarkeria mota batzuk azaltzen dizkigu:

Mendaroko herrian, EMAKUMEAK jasandako tratua, eskubideak bortxatu ondoren, biolentzia psikikoa pairatu genuen. Athletic-aren intxak antolatutako afari batean, hauetariko intxa "matxista" batzuek, emakume intxen partaidetza ukatu zuten.

Pasarte, anekdota hutsean gera ez dadin, salaketa hau egiten dugu, erreflexio modura, gizonetako matxista horiek beren baitan galdetzeko: EMAKUMEAK ZERTARAKO?, eta emakumeok aldiz, horrelako egoeretan elkartu eta gure eskubideak aldarrikatzeko. **Ziortza eta Amagoia**

Kalearen egoera

Hirurtasun kaleko bizilagun batzuk gara eta lehen erreka zegoen tokian orain dagoen kale zuloaren egoera ikusi ondoren, zuzenketa bat eskatzeko idazten dugu:

Kale horren egoera onartezina dela esan dezakegu. Leihora irten eta bertako zikinkeria ikustean,

bazterturik dagoen kale baten aurreran gaudela pentsatzen dugu. Nahikoa da bertan bizi diren arratoiak eta xaguak ikustea (osasunarentzat kaltegarriak).

Guk ez dugu luxuzko kale bat eskatzen, baina, bai noski, kale horren garbiketa eta berrikuntza, kale hau egoera hobean egotea posible baita.

Hori egingo duzuelakoan agurtzen gara, **Hirurtasun kaleko biztanle batzuk**

Gazteak eta Mendaro

Mendaroko herriak astekari honetan duen txoko honetatik, gazteontzat eta hain gazte ez direnentzat dagoen ekintza falta salatu nahi genuke. Jakina da herri honek ez duela baliabide ekonomiko ugaririk, jakina da baita ere badituela bete beharreko beste hutsune batzuk; baina ezin dugu herri bat porlanez inguratu, porlanetan ezin baita lorarik hazi ez eta animaliarik bizi ere.

Hala ere, inori ezer aurpegitzen hasi baino lehen, gure joakera aztertu beharko genuke. Lagunartean elkartzen garenean, aisialdirako ekintzarik ez dagoelako kexu gara, baina hala ere, gure gustuko ekintzak prestatzerako orduan, dena egina eta

antolatua izatea atsegin dugu eta bestela "paso" egiten dugu.

Arazo hauetaz ohartuz, Mendaron bada lanean diharduen jendea, eta batez ere, ezin dugu ahaztu badirela gazte batzuk irteera bila Kurutzpe KE-ren buru eginik ekintza sail zabal bat prestatzen ari direnak eta gazteontzako denbora pasa toki ganorazko bat atontzen saiatzen ari diren beste batzuk ere.

Baina talde hauen lanerako gogo eta grinaren aurrean zein da mendarotarron erantzuna? Hutsala. Bestalde, salatu beharra dago gu guztion ardura eza eta aitzaki merkeak asmatzeko dugun aparteko abilezia.

Herritarren erantzuna jasotzerako orduan arazo gehien dituen taldeetariko bat emakume taldea dela esan daiteke. Talde honen jarraipena zalantzan zegoen unean eginiko inkesta batek jarraitzera bultzatu zituen aldeko emaitza jaso ondoren. Baina benetako orduan, herritarren erantzuna aurkakoa izan da, talde horren lanerako grina hoztua eta taldea desagertzera bultzatuz.

Eta azkenik aditu baten hitzak gogoratu nahi genituzke: "Herri baten aurrerapen maila herri honek urte batean zementotan gastatzen duen kopuruaren arabera da".

Alaitz eta Iraide

HEMENDIK

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00

BODEGA

**Berezitasunak: - Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta**

Ondo pasa San Anton jaiak !!

Fotero

OKINDEGIA

OPILEDGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

UDA BERRI
ELGOIBAR

Mendaroko sorgiñak

Garai batean, herri bakoitzean, sorgin bat baino gehiago bizi omen zen. Esaten denez, gauez, baso, zubi-azpi edo kobazuloetan elkartzen ziren Aklarreak egiteko. Hara joan ahal izateko animalia itxura hartzen zuten, "sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik" esanez.

Mendaron ere izan ditugu sorginak. Gure arbasoen ustez Kilimongo zuloan bizi ziren eta iluntzero, Abemariko kanpaiekin irteten ziren kobatik pandero joka. Gaua sorginkerietan pasa ondoren, goizaldean, Naruñarekin batera sartzten ziren berriro kobazuloan.

Sorginak zirela eta ez zirela hainbat kondaira sortu ziren. Hemen duzue bat:

"Anbeste etxe on, anbeste andre on" esaera zaharrak esaten duen bezala, ba omen zen Mendaron ere, Korta-Zabal baserrian andre on eta langile bat. Etxeko lanak egin ondoren, gauero goruetan egoten zen sutondoan. Ordu lasaiak eta atseginak ziren andrearantz. Baina ordu horiek latzak eta beldurgarriak bihurtu ziren izugarrizko katu beltz bat agertu zitzaionean.

Gauero aulkian esertzerakoan begi berde eta disdiratsuk zeuzkan katua azaltzen zen.

Nahiz eta beldur izan, ez zen ausartzen katua bakarrik uzten, mesprezio bezala hartuko zuelako sorginak. Gauzak honela, egunetik egunera argalagoa eta goibelagoa



zegoen. Senarra galdezka hasi zen, ea zergatik ez zuen barre egiten lehen bezala, ea zergatik zegoen hain argal... baina ez zuen andrearen erantzunik jasotzen.

Behin ezin izan zuen gehiago; senarrerengana joan eta dena kontatu zion.

Hurrengo gauean gizona, bere emaztearen arropak jantzita, goruetan hasi zen. Halako batean katu bat agertu zen eta begiak handituz, honela esan zion gizonari:

- Goruetan gizona izanda?
- eta gizonak erantzun zion:
- Berbetan katua izanda?

Gizonak sutan zuen alperra hartu zuen katua jotzeko, eta baita jo ere, tximista baino azkarrago joan baitzen katua iheska.

Esaten dutenez hurrengo egunean sorgin fama zuen Mendaroko atso bat besoa lotuta agertu zen.

"Eta hau hala bazan sar dadila kalabazan eta ager dadila Mendaroko Plazan"

Garbiñe Zabala

Asier Arriola "Emeterio"



- Txikitatik izan al duzu sukaldaritzarako afizioa? ■ Bai. Jatetxea dugunez, beti gustatu izan zait.
- Jakirik gogokoena? ■ Arkumea.
- Eta preziatuena? ■ Bakailaua eta legatza.
- Mendaro ala Donostia? ■ Bixak ditut bihotzian.
- Parranden aldekoa? ■ Gazte bezala bihar det, baina lehenengoa lana da.
- Jatea ala prestatzea? ■ Bixak.
- Janari erotikorik? ■ Ostrak.
- 25 urterekin, gailurretik hain hurbil egoteko "errezeta"? ■ Buruaz pentsatu eta gogor lan egin.
- Zer nahiko zenuke gizarte honetan? ■ Gauzei garrantzia eman, baina txikienetatik hasita.
- Nongo janaria duzu gustukoena? ■ Kalitatezkoa den edonongoa.
- Utziko al zenuke norbait jan gabe? ■ Ez, baina zenbaitzuek merezi dute.
- Zer eskatzen diozu 1994.ari? ■ Neure eta besteen proiektuak ateratzea, denak beharrezkoak bait gara munduan.
- Iritsi al da krisia jatetxeetara? ■ Igartzen da bai.
- Zerk lagundu dizu gehien munduan? ■ Gertatu zaizkidan gauza txiki zein handi guztiek.
- Mendaro piskanaka Donostiaren itxura hartzen omen doa... ■ Onak dira Mendarorentzat bere nortasuna galdu gabe egin eta egiten ari diren proiektuak.

"EMAN GOGOR EUSKARARI"

UDAL



DEBABE
EUSKALTEGIEN
MANKOMUNITATEA
Nafarroa plaza, 2
74 27 31-ELGOIBAR

- Matrikula epea irekita urtarrilaren 18tik 31ra arte
- Maila guztiak. LANGABETU ETA IKASLEENTZAT PREZIO BEREZIAK. Beka sistema.
- Informa zaitetz 74 27 31 telefonoan

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

■ Krisma lehiaketa

Zenbait urte ospatu gabe egon ondoren, pasa den hilaren 18an ikastolako umeen arteko krisma lehiaketa antolatu zuen Kurutzpe Kultur Elkarteak. OHOk ikasleak, ikasketa mailaren arauera mailakatu ziren. Hilaren 18an goiz osoz jendaurreko erakusketa izan ondoren, eguerdian sari banaketa egin zen, honako hauek izan zirelarik sarituak:

1 eta 2. maila:

1. saria: Oihana Lizarralde
2. saria: Aitor Agirrebeña
3. saria: Izaskun Loiola

3, 4 eta 5. maila:

1. saria: Maite Zubiaurre
2. saria: Aitor Basurto
3. saria: Raul Martin
4. saria: Patricia Nabo

6, 7 eta 8. maila:

1. saria: Olalla Revert
2. saria: Maite Maiora
3. saria: Xabier Loiola
4. saria: Amagoia Basurto

Aurtengo edizio hau krismen maila onak eta urtero bezala sari banaketaren aurreko partehartzaileen irriki eta ilusioak markatua izan da.

■ Kalamuara irteera

Arno Mendaroko Gurasoen elkarteak mendi irteera antolatu du datorren otsailaren 20rako, igandea. Irteera Kalamua mendira izango da eta hankak nekatzeko gogoia duen guztiak parte har dezake irteeran. Informazio gehiago eskuratzeko Arnokoekin harremanetan jarri.

Olentzero joan zaigu...

Alkorta-menditik euri artean azaldu zitzaigun aurtengoan ere Olentzero, koplazaharrak dioen bezala pipa ahoan eta zatoa eskuan zekarrelarik. Aurtengo Olentzerok zenbait berezitasun izan zituen; hauen artean aipagarriena beste urteetako panpina alde batera utziz pertsona batek antzestu zuela Olentzero izan zen.

Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, aintzinako usadiroari jarraituz gazte eta hain gazte ez diren jende mordoxka ederra bildu zen Garagartzako eliz aurretik abiatuz, Olentzerok eskea burutzeko asmoz. Aurtengo eskean 50.000 pezeta inguru bilt-

zea lortu zen; aurtengo honetan diru hau UNICEF erakundearentzat izan da.

Hiru bat orduz Mendaroko zoko gehientsuenak Gabon abesti xamurrez alaitu ondoren ohiturazko intxaur janaz eta Kurutzpe K.E.aren otarraren zozketaz eman zitzaion amaiera aurtengo Olentzeroari.

Aipagarria da aldi berean, pasa den urtean lehenengo aldiz egin zen bezalaxe, Mendaroko Ospitalera horren egun berezian bertako ezinduen, langile eta senitartekoen bihotza alaitu asmoz egin zela bisitalditxo. Bertan oso une hun-kigarri eta bereziak bizi izan ziren gaua erori zenean.



Aurtengo eskean 50.000 pezeta inguru lortu dira.

LAXAKOR

ALUMINIOZKO AROZTEGIA

POLIURETANOA • P.V.C.

• MISTOA (EGURRA- ALUMINIOA)

K/ J.M. Linazasoro, 9.
(Tren geltoki ondoan)

FAX 75 62 28 MENDARO

**PUBLI
ZITA
TEA**

74 41 12

Mendaroko Udalaren 10. urtebetetzea

Mendaro duela 10 urte sortu zen, 1983.ean Ofizialki abenduaren 30ean bete zituen 10 urte ume txiki honek. Jakina den bezala, herri ezberdinetako lau auzok osatu zuten Mendaro: Debako Garagartzak, Mutrikuko Azpilgoetak eta Plazak eta Elgoibarko Mendarozabalek.



Xabier Aizarna, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari ohiaren agurra.

Auzoen batasunaren aldeko lehenengo saialdia 1930. urtean izan zen, eta bertako auzokideek bultzatu zuten baina Mutrikuko udalerrriak atzera bota zuen. Duela hamasei urte beste saialdi bat izan zen. Auzoetako biztanleen %94a askatasuna eta udalerrri berri bat sortzearen alde agertzen zelarik herriko talde bat gestio lanetan hasi zen. Mutrikuko Udala zen arazo gehien jartzen zituena,

izan ere, 5.000 biztanle-tik jeistean bere estatusa galtzen baitzuen. Baina eginbehar neketsuen ondoren, 1.983ko abenduaren 30ean Mendarok bere independentzia lortu zuen.

**Mutrikuko
Udalak jarri
zizkion
independentziari
oztoporik
handienak**

Hamar urte geroago, gaur egungo gorporazioak omenaldi bat eskeini nahi izan zion, bai Mendaroko herriari bai Mendaroko Udala lortzeko lagundu zuten pertsona eta erakundeei. Jai giroan eman zitzaion hasera ospakizunei *Bizi-poza* txarangarekin. Meza nagusiaren ondoren ospakizunera bildutako guztiei omenalditxo bat egin zitzaion. Bertan bildu ziren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusietako ordeka-

riak, Mendaroko Udaleko batzordekideak, Mendaroko Udaleko lehen gorporazioa, Elgoibar eta Mutrikuko Udalen 1.983ko Alkateak, herriko hainbat elkarte, eta abar...

Luntx herriko baten ondoren, bazkari batekin eman zitzaion bukaera ospakizunei.

Mendaroko Udalak, aldizkari honen bidez, eskerrik beroenak eman nahi dizkie gonbidatu eta herritar guztiei.

TOKI ALAI jatetxea

- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak

Goizeko 8etatik zabalik

Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESKLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR

✓ **Getariako musika bandaren kontzertua**

Kontzepzio egunean kontzertu bikaina eskeini zuen Garagarzako plazan Getariako musika bandak. Jende ugari bildu zuen gazte jendez osatutako banda honek.

✓ **Mendaroko abesbatza kantari**

Bi kontzertu eskeini dizkigute aurtengo Gabonetan herriko abesbatzakoek. Bat Natibitate egunean Garagarzako elizan eta bestea, hilaren 30ean Azpilgoetakoan. Bietan elizak leporaino bete ziren, beraz herriko Pavaroti eta Caballeoi animatu besterik ez zaizue gelditzen.

✓ **Elgoibarko musika bandaren kontzertua**

Kontzertua, abenduaren 26an izan zen Azpilgoetako Elizan. Egun berean uholdeak eta eguraldi narraza izan arren, Elgoibarko Musika Bandak eskainitakoa goi mailakoa izan zen.

✓ **Athletic taldearen zaletuen afaria**

Bilboko Athletic taldearen zaletu kuadrila bat, guztira 20 lagun, Athletic-arekiko zaletasuna aitzaki, afari baten bueltan bildu ziren. Afariaren inguruan polemika sortu da dagoeneko.

Eta arrazoia hauxe izan da: Mendaroko emakumeek ez zuten afarian parte hartzerik izan eta horrek emakumeen haserrea sortu du. Ea hurrengoan emakumezkoak zein gizonezkoak bufanda zuri-gorria lepoan lotuta elkarrekin ikusten ditugun!



✓ **Argazki zaharren erakusketa**

Mendaroko kultur Etxean lau egunez egon zen zabalik erakusketa hau eta bertan Mendarori buruzko 40 bat argazki zahar ikus zitezkeen. Azpimarragarria da zer nolako arreta izan zuen mendarotarrengan erakusketa honek, izan ere, egunero ia beteta egon baitzen erakustaretoa. Mila esker argazkiak utzi zituzten guztiei, beraiei esker burutu ahal izan baitzen erakustaldia.



✓ **Musika klasikoko kontzertua**

Juan Agustin Arriola "Artañola" biolinjole mendarotarrak eta Karnele Prat pianojole debarrak musika kontzertu bat eskeini zuten abenduaren 18an Azpilgoetako elizan. Ordubate inguru iraun zuen saioan Mozart, Beethoven, Massenet eta Aita Donostiaren obrak jo zituzten. Bertara hurbildu zen jende ugaria ezin gusturago geratu zen.



Zenbait argibide

Mendaroko Udalak KiliBARREN aldizkaria argitaratzeko zeukan hitzarmena 4 alekoa zenez, momentuz hau da azkena. Honek ez du esan nahi Mendaroko aldizkaria betirako amaitu denik, baina 1994.eko Udal Aurrekontua aztertu arte atsedenal-ditxo bat egiteko beharrea gaude.

Espero dugu aurrerantzean proiektu honekin jarraitzea, batez ere, euskara sustatzeko modu egokia delako eta mendarotarrentzat komunikabide interesgarria bihurtu delako.

KiliBARREN aldizkaria Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua izan arren, garbi utzi behar da Udalak ez duela parte hartu gaiak aukeratzekoan, ezta ere iritziak ematerakoan. Guzti hau kolaboratzaileen lana izan da eta, beraz, esker mila proiektu hau burutzea posible egin dutelako.

Orain arteko aleetan mota guztietako iritziak eta artikuluak azaldu dira eta, azken hau bikoitza dela aprobetxatuz, Udalak berari dagozkion hainbat puntu argitu nahi ditu:

1- Lehengo aleak, kultur arloan, zera zioen: "Mendaroko hiru kultur talde lokalik gabe".

Mendaroko Udalak, 1992.eko abenduan, Zelaikua Plazako lokala zabaldu eta herriko elkarte eta talde guztiei eskaini zien bilerak egiteko. Biltoki hau guztiz prestatua dago, berogailuak, komunak eta elkarte bakoitzarentzako artxibategia dituztelarik. Beraz, kalean aurkitzen denak badaki nora jo.

2- Beste gai polemikoa, sarritan aipatu dena, herriko elkarte eta taldeei eman zaien diru-

laguntzarena izan da. Informazio gisa, hona hemen gaurregungo legegaldian eman ditugun diru-laguntzak:

- Kurutzpe K.E. 923.400 pta.
- Kilimon F. T. 2.850.000 pta.
- Mendaroko Txirrindulari Elkar-tea 294.000 pta.
- Mendaroko Emakume Taldea 125.000 pta.
- Mendaroko abesbatza 75.000 pta.
- Leizarpe espeleologi taldea 181.200 pta.

Lilimoon rock taldeak, 1989. urtean 200.000 pezetako diru laguntza jaso zuen eta Bizi-Poza txarangak, 1991. urtean, 400.000 pezeta. Biak instrumentuak erosteko.

Bestalde, umeei zuzendutako ekintzetan (Arno gurasoen elkarte, Mendaroko gazteak dantza taldea, igeriketa kanpaina, etb.) 3.712.283 pezeta gastatu dira. Jubilatuei zuzendutakoetan, aldiz, 875.667 pta.

3- Hirugarren alean, Mendaroko alkate ohiak Udalaren 10 urteen balantzea egiterakoan, bazirudien orain arte Mendaron egindakoa berak bakar bakarrik lortu duela. Eginkizun honetan gabiltzanok ondo dakigu gauzak egitea eta erabakiak hartzea zenbat kostatzen den eta, Alkatea Udalaren burua izan arren, zinegotzien baime-na eta Udaleko langile, tekniko, herriko elkarte eta, azken finean, herritarren laguntza nahitaezkoak dira.

Azkenik, lerro hauen bidez adierazi nahi dut Udala zabalik dagoela jendeak proposamen eta iradokizunak aurkez ditzan.

Mendaroko Alkatea

✓ Iragan den abenduan Kilimon futbol taldeko eta Elgoibar C.D.ko beteranoek Mendaroko Ospas-Gain futbol zelaian partidu bat jokatu zuten. Jende ugari partidua animatzeko eta giro ezin hobea izan zen Ospas-Gainen. Emaizta 0 eta 5eko izan zen elgoibartarren alde.



Kilimon

EGANA



Elgoibar

EGANA

AGENDA

Urtarrilak 16 igandea

FUTBOLA

Bergara K. E. -
Kilimon F.T.

Urtarrilak 23 igandea

FUTBOLA

Oiartzun K.E. -
Kilimon F.T.

Urtarrilak 30 igandea

FUTBOLA

Kilimon F.T.-
Ilintxa S.D.
Ospas gain zelaian.

Otsailak 20 igandea

MENDI IRTEERA

KALAMUARA

ARNOk antolatuta.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak:

Joseba Etxeberria,
Aingeru Gallastegi, Mikel
Garate, Haritz
Goikoetxea, Iraide
Loiola, Maria Longarte,
Ziortza Urbieta, Alaitz
Vives, Garbiñe Zabala.



Mendaroko Udalaren
dirulaguntzarekin
argitaratua

Gabi jatetxea

Nafarroa plaza ☎ 74 12 30

BEREZITASUNAK

GOSARIAK - PINTXOAK (8,30etatik aurrera)
MENU BEREZIAK - MENU TRADIZIONALAK

JANGELA

ASTELEHENETIK LARUNBATERA IREKITA
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA GAUEZ ITXITA

*San Anton
jai
zoriontsuak
igaro!!*

Nahi ezkerro erreserbak jasotzen ditugu



Urtero bezalaxe, Mausitxa txarangakoek urteroko partidua jokatu zuten joan zen ostiralean, hilak 7. Mintxetan jokatu zuten, argazkian ikusten den bezalaxe, jende ugariaren aurrean. Normala ez den arren, aurtengo partiduan "egurrak" irabazi zion baju handiak zituen metalari. Ohizko bi zatien amaieran, polemikaz beteriko prorroga baten ondoren, "egurra" izan zen garaile. Esan beharrik ez dago txarangakoek joko bikaina erakutsi zutela, instrumentuak jotzeaz gain, futboleko jolasten ere oso ondo dakitela agertuz. Partiduko gorabehera guztiak, ondoren egin zuten lagun arteko afari batean eztabaidatu zituzten.

Pedro Migel Urruzunori buruzko seiluak ikusgai

Larunbatean, hilak 15, zabalduko zaio jendeari herriko filatelia elkarteak Kultur etxean antolatu duen seilu erakusketa. Filatelia elkarteak Pedro Migel Urruzunori herriko apaiz eta idazle zenaren omenez, bere irudiaren mataseilua prestatu du. Horrela, astebukaerari zehar, idazlearen irudiarekin mataseilua jasotzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren guztiak. Filatelia elkarteak antolatutako XIV. erakusketa hau hilaren 22ra arte egongo da ikusgai. Jose Mari Etxanizek lagatako argazkian, P.M. Urruzunori.



■ Gestio Eskolak lau ikastaro antolatu ditu

IMHn kokatuta dagoen Gestio Eskolak lau ikastaro antolatu ditu datozen sei hilabeteetarako. Gestio Eskolak gaurrengoko direktiboari errezikatzeak aukera eman nahi die ikastaro hauekin. Lehendabizikoa "Familiarteko enpresen gestio eta zuzendaritza"ri buruzkoa izango da. Ikastaroak 13 ordu iraungo ditu eta hilaren 28ko ostiralean eta 29ko goizean izango da. Bigarren ikastaroa enpresako gestioa hobetzeari buruzkoa izango da, hirugarrena zuzendariei zuzendua egongo da eta azken ikastaroaren gaia giza baliabideen koordinazio eta zuzendaritza izango da. Ikastaroen plazak mugatuak izango dira. Ikastaroak praktikoak izango dira metodologia aktiboa erabiliz. Informazio gehiago eskuratzeko, 74 41 32 zenbakira deitu.

■ Koldo Lizarralde etnografoaren liburuaren aurkezpena

Koldo Lizarralde etnografo elgoibartarrak "Apuntes etnograficos en Elgoibar I" izeneko liburuaren aurkezpena egingo du Kultur Etxean astelehenean, hilak 17, iluntzeko 7etan. Koldok urteetan zehar bildutako Elgoibarko hainbat ohitura, jai eta bestelako kontakizunak bildu ditu liburuan.



GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiazen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*



Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Aloña Aranburu:

“Urtebetean gauza askoren falta sentituko dut”

Aloña Aranburu, 23 urteko elgoibartarra hilaren 8an Mexikorantz abiatu zen. Ikasketak bukatu eta era askotako frogak gainditu ondoren, ICEX-ek

Espainia mailan ematen dituen 100 beketako bat lortu du. Urtebetez Espainiak bertako hiriburuan duen ofizinan lanean egongo da.

- Zergatik aukeratu zenuen karrera hori?

- Ba al dakit ba? Uste dut beste bokaziorik ez nuekalako, agian, zerbait egin behar nuela eta gustukoena hura zelako. Ingenieritzak ez zitzaizkidan gustatzen, medikuntza eta horrelako gauzak ere ez; benetan geroa begira jartzen zara pentsatzen eta aukera handirik ez dagoenez...

- Kontaiguzu nolatan zoazen Mexikora estudiantzera.

- Bukatu genuenean klase guztia geratu ginen lana aurkitzeko oso espektatiba txarrekin eta ateratzen ziren oposaketa eta beka guztietara apuntatu ginen. Urtero, ICEX-eko, “Instituto de comercio Exterior”-ek, beka batzuk ateratzen ditu Espainia mailan, 100 ematen dituztelarik, 50 estatu barnean lan egiteko eta beste 50 atzerrirako. Ni hasera batean apuntatu bai, baina aukerarik ez zegoela pentsatzen nuen.

Bekak urtebete edo urte eta erdikoak izaten dira lekuaren arabera. Bestalde, ni Mexikora noa baina destinu pila bat daude: Nigeria, Costa de Marfil, Tokio, Malasia, Sidney... urtero destino



“Hasera batean apuntatu bai, baina aukerarik egongo ez zela uste nuen”

hauek aldatu egiten dira Espainiak ofizina komertzialak munduko herrialde guztietan baititu.

- Zer froga gainditu behar izan dituzu?

- Lehenengo hizkuntza azterketa egiten dizute; ingelesa, frantsesa, alemaniera, italiara edo portugesa jakin behar duzu derrigorrez. Hau pasa ondoren idatzizko eta ahozko examina bat dago. Hau gainditzeko duenak temarioari buruzko beste azterketa bat, test eran, beraiek gaien

irizpide bat ematen dutelarik. Gaindituz gero, berriro deitzen zaituzte eta oraingoan entrebista pertsonala. Gauza hauekin puntuak ematen dizkizute eta gero lista batean jarri. Honela egun batez telefonoz deitzen dute beka bat eman dizutela destino baterako esanez. Onartzen ez baduzu ez dizute destinoa aldatzeko aukerarik ematen, beraz, toka ahal litzaizkidekeen destinoen artean zortea izan dut.

- Zer lan mota egingo

duzu han?

- Espainiako ofizina komertzialera noa, beraz, teoriarik suposatzen da esportazioak fomentatu nahi direla. Orduan, gure lana, inbertsioetarako zein oportunitate dagoen, merkatu estudioak egitea, hango informazioa hona ekartzea, feriak antolatzea... izango da. Han jefe bat izango dut eta nire lana berak agindutakoaren arabera izango da.

- Hara joateak pausu garrantzitsua suposatuko du zuretzat, ezta?

- Bai, egia esan, ez nuen espero horrelako aukera izaterik, ametsetan ere. Esperientziaz aparte gainera, beste nazio eta gizarte bat ezagutzeko aukera izango dut.

- Zeinen edo zeren falta sentituko duzu han?

- Igual euskaraz hitz egitea edo... Han euskal etxea dagoela enteratu naiz eta non dagoen ere badakit. Elgoibarko beste mutil bat ere han dago, pilotari joan eta han geratu zena. Agian, ez dakit mendirik dagoen baina mendiak... urtebetean gauza askoren falta sentituko dudala uste dut.

Belen Arrizabalaga

BATA ala **BESTEIA**

Lucia Casquero

Kemen
Belardendakoa



- **Zenbat denbora daramazu hemen lanean?** ▶ Maiatzean, hiru urte etorriko dira.
- **Zer dute berezirik produktu hauek?** ▶ Produktu naturalak direla, kultibo biologikoak.
- **Garestiagoak al dira?** ▶ Medizina naturala, nik saltzen dudana, seguritate sozialaren barruan balego, merkeagoa izango litzateke.
- **Nori zuzenduta daude?** ▶ Mundu guztiari.
- **Zer saltzen da gehien?** ▶ Belarren estraktuak eta pastiletan, belarren konprimiduak.
- **Emakumezkoak ala gizonezkoak etortzen dira gehiago?** ▶ Emakumeak, oraindik ere emakumeek erosketak gehiago egiten dituztelako.
- **Azukrearekin ala gabe?** ▶ Eztiarekin.
- **Infusio bat?** ▶ Menta, anisa eta erregalizarena oso infusio onak dira.
- **Zinea ala telebista?** ▶ Zinea.
- **Kolore bat?** ▶ Berdea.
- **Irakurri duzun azken liburua?** ▶ “Zero” izenburua duen bat.
- **Perfumerik?** ▶ Limoia, azahar-a.
- **Gaurko ogia ala lehengo taloa?** ▶ Ogi integrala.
- **Botika asko hartzen duzu?** ▶ Elikadura orekatua jaten dut eta beharrezkoa denean bakarrik hartzen ditut botikak.
- **Medikuntza alternatiboaz, zer?** ▶ Medikuntza alternatiboa beste medikuntzarekin batera existitu behar da eta nire ustez medizina hobereana prebentzioa da.

Maite Iriondo

Francisco Arano
(Baltasar)



OJANGUREN

- 1887. urtean hasi zen pilotari bezala baina urrezko garaia 1892 eta 1908 urte bitartekoa izan zuen.
- “Sustarra” rekin batera bikote ospetsua osatu zuen.
- Gorputz sendo eta handiko pilotaria; erresistentzia handikoa. Partiduak hainbeste luzatzen zituen, ezen argirik gabe gelditzen baitziren eta partidua bertan behera utzi.
- “Txikito de Azkoitia” garaiko aurrelaririk onena izanda eta Baltasar atzelaririk onena, punta puntako partiduetan elkarren aurka jokatzeari derrigorrezkoa zen.
- 1905. urtean historiako tanturik luzeenetarikoa neurtu zuten. Baltasar eta Takolo, Txikito eta Urzelairen aurka. Tantuak 40 minutu iraun zituen.
- Azken partidua Logroñon jokatu zuen 1928. urtean, Txortinarekin bikote, “Txikito” eta Urzelairen aurka.
- Orain dela 40 bat urte hil zen.

Aranburu 

Bitxidenda

San Frantzisko 26. ☎ 74 25 35

Gabonetako eskeintza berezian zozketatutako bi erlojuen zenbaki sarituak:

GIZONEZKOEN ERLOJUA 6.652
EMAKUMEZKOEN ERLOJUA 6.918

Lorionak !!

MOTZAK

Emaitza onak Olaizaga Karate taldekoentzat

Olaizaga Karate taldekoak Markinan jokatu zen probintzia arteko txapelketan parte hartu zuten joan den abenduan. Elgoibartik 30 karateka izan ziren. Alebinen kategorian Josu Duran elgoibartarrak lehen postua atera zuen eta Nerea Sierrak hirugarrena. Lehen hamar sailkatuen artean Patricia Menor, Mikel Armendia eta Cristian del Rio geratu ziren. Infantilen kategorian bi karateka elgoibartarrek bakarrik parte hartu zuten.

La Union-en deialdia

La Union ehiza eta arrantza elkarteak hilabete honetan egingo dituen bileren berri eman nahi du: hilaren 18an bilera lokala egingo dute iluntzeko 8,30etan izanik lehen deialdia eta 9,00etan bigarren deialdia. Hilaren 19an, berriz, bilera deportiboa izango da. Lehen deialdia 8,30etan eta bigarrena 9,00etan izango da.

Pilota jaialdia

Gaur, hilak 14, Lagunak pilota eskolak antolatuta, esku pilota jaialdia izango da Ikastolako frontoian gaueko 10etan. Lau t'erdia barruan Muruamendiaraz eta Motxainek jokatu dute. Eskuz binaka, berriz, Dani-Arroyo bikoteak Ubera eta Almandoz-en aurka jokatu du eta Berasaluze VIIak eta Bazetak, Muguruza eta Imazen aurka.



Miren Beitia :

Gipuzkoako saskibaloit taldeko jokalaria

■ Noiz hasi zinen saskibaloian?

- Gipuzkoako selekzioan jua zan urtian. Baina lehenago ikastolako eskolarteko jokuetan jokatzen naban.

■ Nola heldu zinen Gipuzkoako selekzioara? - Eskualdeko txapelketan Donostiara jun ginan. Bertan gizon batek esan zion nere entrenaduari ondo jokatzen nabala eta ia jungo nintzan prueba batzuk egitera Donostiara. Jun nintzan eta deituko ziatela esan ziaten.

■ Zein postutan jokatzen duzu?

- Erdiko aldean, pibot bezala. Defenditzea da nire lana.

■ Entrenamendua gogorra al da? - Bai oso gogorra. Baloiak jokatzen dogu batez ere, eta Ikastolako entrenamenduarekin konparatzen badozu oso gogorra da. Orain ez nabil entrenatzen baina Gabonak eta gero hasiko gerala esan diate. Normalean astero juten naiz, astear-tetan, bi ordu edo.

■ Urtebete honetan zer moduzko emaitzak izan dituzue? - Oraindik ez dogu jokatu eta esan digute urte honetarako entrena-tu behar dogula. Bertan eta kanpoan

12 urte. NBA ligako jokalaria guztiak miresten ditu eta bere talde faboritua "Lakers" da. Partidu batean gehienez lortu dituen saskiratzeak 7 edo 8 bat izan dira. Kirol guztiak ditu gogoko baina batez ere, futbola.



jokatu beharko dogu.

■ Zer gustatzen zaizu gehien Gipuzkoako selekzioan jokatze-tik? - Inportantia dan ekipoan jokatzen dozu eta horrek satisfaziua ematen du. Gipuzkoan ondo jokatzen dabezenen artetik zu egotiak ilusia ematen du.

■ Zer da zuretzat garrantzitsuagoa, irabaztea ala jokatzea?

- Taldiakin jokatzea. Partidu batzuek baino lehenago komentatu egiten dogu nolakoak izango diren eta ia irabazten dogun baina ia gehixenetan ez dogu irabazteko aukerarik eukitzen.

■ Aurrera begira zein asmo dituzu saskibaloian?

- Aurrera jarraitzeko asmua daukat baina nik hiru kirol jokatzen ditut: saskibaloia, eskubaloia eta futbola. Futbola da gehixen gustatzen jatana baina oraïn selekzioan nauanez... Dana dala gustatuko jatan aurrerago ere jokatzen jarraitzea, baina beste kirol batzuk gehiago gustatzen jataz.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGURAOAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

IV. Elgoibarko Areto Futbol Txapelketa



■ ■ Elgoibar Areto Futbol Taldeko lehen mailako ekipoa.



■ ■ Elgoibar Areto Futbol Taldeko bigarren mailako ekipoa.

J oan den asteazkenean, hilak 5, Elgoibarko IV. Areto Futbol txapelketa jokatu zuten Elgoibarko bi futbol taldeek eta Ondarruko Astilleru taldeak. Txapelketako lehen partiduan Elgoibarko lehen mailako taldeak ez zuen oztoporik izan bigarren mailakoari 4 eta 2ko emaitzaz irabazteko, bi taldeen jokuaren maila ezberdina agerian geratuz. Bigarren saioan, Ondarruko Astilleru taldea merezimendu osoz nagusitu zitzaion herriko bigarren ekipoa.

Beraz, txapelketa hirugarren partiduan erabaki zen, Elgoibarko lehen taldeak eta Ondarrutarrek jokaturako partiduan. Egia esan, azken hau izan zen bai joku eta bai emozio aldetik, partidurik onena. Azkenean, penalti jaurtiketan erabaki zen txapelketa, Ondarrutarrak nagusitu zirelarik.

Txapelketa honen barruan, 92-93 denboraldiko herriko bi taldeetako jokalaririk onenak izan diren Jon Pozuelok eta Cesar Arriolak eta golegile onenak izan diren Aitor Zabalak eta Alejandro Sotak sariak jaso zituzten.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan

Larunbata 15

10,00: Urki - San Inazio (Jubenilak)

12,00: Eibar - Don Bosco (Jubenilak)

16,00: Elgoibar - Lagun Onak (2. erreg.)

MUGERZA KROSA Mintxetan

Igandea 16

10,45: Emakumezko Juniorrak

11,15: Gizonezko Juniorrak

11,45: Emakumezkoen Senior promesak

12,30: Gizonezko Seniorrak

ESKUBALOIA Kiroldegian

Ostirala 14

21,15: Elgoibar . - Usurbil (Neskak)

Ingandea 16

12,15: Elgoibar. - Don Bosco (Jubenilak)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Ostirala 14

22,00: Elgoibar - (Zehaztu gabe).
(2. maila)

23,00: Elgoibar.- Paskual Ateak
(1. maila)

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2- Mondragon 0

Zestua 3 - Elgoibar K.E. 11 (2. errej.)

Elgoibar 3- Anaitasuna 1(Kadeteak)

Elgoibar K.E.-3 - Añorga 1 (Infantilak)

Elgoibar K.E. 5 - Urretxu 2 (Neskak)



Alkoholiko Anonimoen Elkarte

Alkoholiko

Anonimoak, izenak dioen bezala elkarte anonimoa da. Elgoibarko Alkoholiko Anonimoak Santa Klarako komentuan biltzen dira astero birritan eta apurtu ezineko araua, anonimotasuna da.

Alkoholiko Anonimoen elkarteak Iparameriketako, duela 58 urte sortu zuten boltsako korredore batek eta mediku batek. Biak batera zeudenean, elkarri arazoak kontatzen, edana alde batera uzten zutelako konturatu ziren. Filosofia honekin jaio zen elkarte eta ideia horretan oinarritzen dira Alkoholiko Anonimoen bilerak.

Elgoibarko Alkoholiko Anonimoen elkarteak San Juan bezpera egunean sortu zuten 10 bat pertsonak 1985. urtean. Hauetatik 9 emakumezkoak ziren eta 3 gizonezkoak. Gaur egun, berriz, 20-25 lagun biltzen dira eta emakume eta gizonezko kopurua antzerakoa da. Monjek lagatako lokalean astero birritan biltzen dira, astelehen eta ostiralean, iluntzeko 8ak aldera. Bilerak ordubetez edo ordu terdiz luzatu ohi dira eta denbora guztia hitz egiten ematen dute. Terapia berba egitean eta nork bere arazoak kontatzean oinarritzen da. Batak besteari bere espe-

"Gutziz komentzituta egon behar da edana lagatzeko"

rientzia kontatzen dio eta alkoholaren arazoa nola gainditu zuen azaldu.



■ ■ Santa Klarako komentuan biltzen dira Alkoholiko Anonimoen elkartekoak.

Bileretara joaten direnen izenik ez da hartzen, ez zaio inori fitxarik egiten eta zaio inori inolako obligaziorik ezartzen. Apurtu ezin duten araua dute: bileretan edan gabe egotea. Elkartearen jomuga nagusia sufritzen dagoenari laguntzea eta edan gabe egotea da. Ez zaio inori bertara joatera behartzen eta ezta ezer ordaintzera ere. Bileren ostean, elizan egiten den antzera, diru boltsa pasatzen da eta norberak borondatearen arabera ematen du. Biltzen duten dirutik sortzen diren gastuak, liburuak direla, kafeak direla..., ordaintzen dituzte.

Alkoholiko Anonimoen elkartearekin arazoa gainditu dutenak 20 bat dira baina elgoibartar asko kanpora joaten dira eta kanpoko asko Elgoibarrera etortzen dira.

Elkartekoek esan digutenez, askok edanari laga baina berriro hasten dira denbora gutxira. Hori gertatzen da pertsona bat guttiz konbentzituta ez dagoenean eta agian ingurukoak bultzatuta laga duelako alkohola. Mozkor hitza ez zaie gustatzen. Zentzu peioratiboa omen dauka. Alkoholikoa alkoholaz gaisotuta dagoena da. Alkoho-

lak pertsona menperatzen duenean pertsona hori alkoholikoa da. Normalean hurrengo egunean alkoholikoa edateaz damutu egiten da. Alkoholikoa, inoiz mozkortu ez dena ere izan daiteke.

Gipuzkoa mailan, herrietako elkarteetako bozerameleak urtean zazpi bat aldiz biltzen dira. Herri mailan hitzaldiak ematen dituzte ikastetxe guztietan.

Elkartekoak beraien telefonoa ematen diote elkarri eta norbaitek laguntza beharko balu deitu besterik ez du. Norbaitek alkohol arazoa balu, Irungo telefono honetara dei dezake: 61 93 38. Bertan nor bere herriko elkarteko kideren batekin harremanetan jartzeko modua erraztuko zaio.

FITXA TEKNIKO

Sorrera urtea: 1985

Iharduera: alkohola laga


Kide kopurua: 20-25

Bilera egunak:

Astelehen eta ostiralak

Lokala:

Santa Klarako komentua



EDUARDO ARRILLAGA

Eduardo Arrillagak bi sari irabazi ditu Bartzelonan

Eduardo Arrillaga argazkilaria ezagunak Bartzelonako "Foto Gran Prix 93" lehiaketan "Familia" atalaren barruan bigarren eta hirugarren saria irabazi ditu "Los últimos Mayas", Guatemalan ateratako argazki bildumako bi argazkiri esker. Lehiaketan 16.000 argazkitik gora parte hartu dute eta lehiaketa honetan argazkilaritzako saririk onenak ematen

dira; guztira, 11 milioi saritan. Epaimahaia Espainia mailako bi argazkilaria ospetsuk osatu dute: F. Catalá-Rocak eta T. Catanyk. Honoko hau Eduardo Arrillagak azken urtean irabazten duen hirugarren saria da eta bigarren eta hirugarren sariagatik 150.000 pezeta irabazi ditu. Zorionak!

Guatemalan ateratako argazki honek hirugarren saria irabazi du.

SAN ANTON BIXIGU AL MONTON



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEAK

*San Anton jai zoriontsuak opa
dizkizue elgoibartar guztioi*

14 OSTIRALA

20,00 KITARRA KONTZERTUA
Musikoak: Beinvenido Rodriguez eta Juan Carlos Martin.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Musika Fundazioa

22,00 PILOTA JAIALDIA
✓ Ikastolako frontoian.

22,30 ANTZERKIA
PAPAROTE antzerki taldearen saioa
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

15 LARUNBATA

12,30 XIV. FILATELIA ERAKUSKETA
On Pedro Miguel Urruzuno idazle eta apaiza zenaren oroimenez.
✓ Kultur Etxeko erakustaretoan

16,30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA DULTZAINEROekin

19,30 JUAN MUGERZA NAZIOARTEKO LI. KROSEKO ONGIETORRI OFIZIALA
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

19,30 KONTZERTUA
HOR KONPON eta KOKOTERAINO
✓ Maalako Parkean (Euria egiten badu, ikastolako frontoian)

22,15 ZINEA
"Matinee"
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba
Zuzendaria: J. Dante
Aktoreak: John Goodman, Cathy Moriarty, Simon Fenton eta Omri Katz.

16 IGANDEA

11,30 ARTISAU FERIA
✓ Plaza handian.

12,00 JUAN MUGERZA NAZIOARTEKO LI. KROSA
✓ Mintxetan

16,00 HAURRENTZAKO PARKEA
✓ Plaza Handian. (Euria egiten badu, Kiroldegian).

22,00 DANTZALDIA
EGAN taldearekin.
✓ Plaza Handian.

17,00-22,15 ZINEA
"Matinee"
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

17 ASTELEHENA

San Anton Eguna

11,00 MEZA NAGUSIA
✓ San Bartolome Elizan.

11,00 ESKUBALOI TALDEAREN ZOZKETA
✓ Kultur Etxean.

11,00 HAURRENTZAKO PARKEA
✓ Plaza Handian. (Euria egiten badu Kiroldegian).

12,30 KONTZERTUA
ERTZANTZAREN musika banda.
✓ Ikastolako aretoan.

16,00 HAURRENTZAKO PARKEA
✓ Plaza Handian. (Euria egiten badu Kiroldegian).

19,00 KOLDO LIZARRALDEREN LIBURUAREN AURKEZPENA
"Apuntes etnografios en Elgoibar - 1".
✓ Kultur Etxeko hitzaldi aretoan.

17,00-19,30-22,15 ZINEA
"Matinee"
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

18 ASTEARTEA

22,15 ZINEA
"Matinee"
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

19 OSTEGUNA

19,00 ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETEN SARI BANAKETA
PETER ROBERTS-en emanaldia
✓ Ikastolako aretoan
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

21 OSTIRALA

22,15 ZINEA
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

ZINEA

"Matinee"

Terrorezko pelikula merkeak egiten dituen zinegile batek Cubako misilen istilua bere azken pelikularen estreinaldirako aprobetxatu nahi du. Produktoreak manifestazio faltsu bat antolatzen du zinearen aurrean pelikularen eduki eskasa salatuz. Zineko aukietan zarata beldurgarria ateratzen duten tresnak jartzen dituzte eta monstruo antzeko bat ere agertzen da. Jendeak, noski, ikaratuta, alde eginten du, izugarritzko saltsa sortuz.

ZINEA

Etxebizitzak

Baserri bat hartuko genuke
Tel.: 76 62 64. Imanol

Etxebarrin etxebizitza berri
bat dago salgai. 87 m²
Sukaldea, 3 logela, egongela
bat, 2 bainu gela, ganbara,
terraza eta garajea.
Tel.: (943) 70 12 71

Pisu bat salgai. Ubitarte 11.
zenbakian.
Tel. 74 12 07
(Iñaki - Mertxe)

Etxe bat saltzen dut Urasandin.
1. pisua.
Tel: 75 51 69

Etxe bat daukat alokatzeko.
Altzariak dauzka. Pedro Migel
Urruzuno kalean (Olatz altzari
denda ondoan).
Tel.: 74 08 09
3,30etatik - 7,30etara.

Lana

Aizu etxekoandre!, perfumeria
apainketa eta kosmetikan ari
den frantziar multinazional
batek emakumezkoak behar
ditu. Salmenta zuzena. Diru
etorri oso ona. Muestrario
bikaina publizitatez lagundua.
Aukera ederra zuretzat.
**Deitu arratsaldeko 7etatik
aurrera 51 04 53 zenbakira.**

Matematika, fisika eta kimika
klaseak ematen dira BUP,
COU eta FP. Gaztelaniaz.
Javier Telf: 74 13 11

Salerosketak

Ford Fiesta 1.400 CLX bat
saltzen dut. 4 urte. SS-AF.
Tel.: 74 07 11 Tomas

Gasezko estufak erosiko
nituzke. Telf: 74 08 95 Maite

Frigorifiko bat erosiko nuke.
Ate indibidualdun kongeladore
txiki batekin. Tel: 74 13 38
Egurdian deitu

Bigarren eskuko Renault 12
Bi- 1988 Y salgai.
Prezio egokia.
Tel.: 74 41 32 Fernando

OPEL CORSA GT 3 ate SS-
AH saltzen da. Tel.: 74 01 17

San Roke auzoan garaje bat
daukat alokatzeko.
Telf: 74 33 78

Garaje bat saltzen da. Bi
kotxerentzat espazioa eta leku
onean. Modu onian.
74 23 44 eguerdiko 12ak
baino lehen.

Bestelakoak

Urrezko katea eta medaila
aurkitu ditut Mintxetan.
Deitu 74 19 21 zenbakira

Igandean krosera doanak ez du
jateko ezer eraman beharrik.
Ikastolako 8. mailakoek txosna
bat jarriko dute ikas-bidaiaren
alde. Ogibitaratekoak eta
edariak izango ditugu.

Abenduaren 29an, elizako
arkupeetan mendiko txamarra
urdin bat desagertu zitzaidan
7ak eta 7,15 bitartean. Aurkitu
duenak dei dezala
74 12 61era. Joseba

Abenduaren 23ko arratsaldean
urrezko domina galdu nuen
Arrillaga eta San Bartolome
kaleen artean. Inizialak:
aurrean A.G. eta atzean ARH +
74 10 68 Ane

Tango baloi bat galdu nuen
Lerungo aparkalekuan.
Norbaitek aurkitu badu
mesedez deitu.
Tel. 74 14 78 Hodei

Karitasek familia bati emateko
erropak gordetzeko armairu bat
behar du. 74 15 09 / 74 12 57

GARATE

BEHERAPENAK

asteartetik aurrera

ERAKUTSI

Seat Cordoba da. Diseinu berria. Probokatzailera bere prestakuntzetan.
Bikaina seguritatean. Ekipamenduan. Ezingo duzu aguantatu.
Erakutsi.



TEKNOLOGIA ALEMANA

SEAT

Bai!



Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 - Tel. 11 36 42 - EIBAR